1. 2005/2006 denboraldiko, 2006ko ekitaldiko kirol jardunen eta programen diru-laguntzei dagokien oinarriak eta horien deialdia onestea, bai izaera arruntekoak edo urtekoak, bai izaera zehatzekoak, Artaleku Udal Kiroldegiaren alokairuetakoak, udakoak eta Eskola Kirolakoak arautzeko.

2. Agindua ematea hitzarmen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Irungo Kirolaren Udal Patronatuko iragarkitaulan argitaratzeko.

3. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, honen berri ematen den egunetik hasi eta hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian zuzenean inpugnatu daiteke honen berri ematen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean, bidezkotzat jo litekeen bestez gainera.

Irun, 2006ko apirilaren 26a.—José Manuel Lizarraga Dorda, Lehendakaria.

(329) (4579)

1.º Aprobar las Bases por las que se regula la concesión de subvenciones y su convocatoria a programas y actividades deportivas de la temporada 2005/2006, ejercicio 2006, de carácter ordinario, concreto, en concepto de alquileres del Polideportivo Municipal Artaleku, Uda y Deporte Escolar.

2.º Ordenar la publicación de este acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, así como en el tablón de anuncios del Patronato Municipal de Deportes de Irun.

3.º La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potrestativamente recurso de reposdición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado d elo contenciso-Adminsitrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha d esu notificación, todod ello con independencia de cualquier otro que estime oportuno.

Irun, a 26 de abril de 2006.—El Presidente, José Manuel Lizarraga Dorda.

(329) (4579)

## ITSASONDOKO UDALA

*Iragarkia*

Itsasondoko Udalak 2006ko martxoaren 16an egindako osoko bilkuran, Itsasondoko Planeamenduko 19. eremuan eta Hiritagarri ez den lurzoruan partzelatzeko eta eraikitzeko baimenak suspenditzea erabaki zuen eta iragarki hau argitaratzen da Hirigintzako Planeamenduko Araudiaren 117. artikulua betez.

Etenaldiaren epea urte betekoa izango da iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita.

Itsasondo, 2006ko martxoaren 31.—Alkatea.

(62) (4501)

## AYUNTAMIENTO DE ITSASONDO

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Itsasondo en sesión plenaria celebrada el 16 de marzo de 2006, acordó la suspensión de licencias de parcelación y de construcción en el area 19 y en suelo clasificado como no urbanizable en las Normas de este municipio lo que se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 117 del Reglamento del Planeamiento Urbanístico.

El plazo de suspensión será de un año contado a partir de la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Itsasondo, a 31 de marzo de 2006.—El Alcalde.

(62) (4501)

## LEGAZPIKO UDALA

*Iragarkia*

Legazpiko Udaleko Udalbatzak, 2006ko otsailaren 22an ospatutako ez-ohiko bileran, Nekazal Bideen Ordenantzaren behin-behineko aldaketa partziala onartu zuen.

Jendaurreko informazio-epea amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu Ordenantzak behin-betiko onespena jasoko duela ulertuko da, beraz, argitaratzeari ekingo zaio.

Legazpi, 2006ko apirilaren 21a.—Alkatea.

(1451) (4502)

*Lurzoru urbanizaezineko udal jabetzapeko bideak babestea, defendatze eta zaintzea arautzeko ordenantza.*

### ATARIKO TITULUA

*1. artikulua.*

Honako ordenantzan arautuko dena Legazpiko udalerrian ezarriko da.

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión extraordinaria celebrada el día 22-02-2006 aprobó con carácter inicial la modificación parcial de la Ordenanza de Caminos Rurales.

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, la citada Ordenanza se entiende aprobada definitivamente, por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 21 de abril de 2006.—El Alcalde.

(1451) (4502)

*Ordenanza Reguladora de la Protección, Defensa y Conservación de los Caminos Municipales en suelo no urbanizable.*

### TITULO PRELIMINAR

*Artículo 1.*

La presente ordenanza será de aplicación en el término municipal de Legazpi.

*2. artikulua.*

Ordenantzaren helburua Legazpiko udalerrian eta lurzoru urbaniezaezinean (edo hirigintzako legerian ezarritako antzeko kontzeptua duen lurzoruan) dauden udal jabetzapeko bideak babestea, defendatzea eta zaintzea izango da.

*3. artikulua.*

Arautze honen helburua Udalari esparru juridikoa eskaintzea da, landa-bideak zaintzeari buruzko eskumenak modu zuzenean garatzeko.

*4. artikulua.*

Ordenantzan jasotako arauak Legazpiko Udaleko inbentarioan une bakoitzean jasota dauden landa-bideei aplikatuko zaizkie. Aipatu inbentarioa indarreko lege-erabakien arabera egingo eta onartuko da.

LEHENENGO TITULUA

UDAL JABETZA PUBLIKOKO BIDEAK

*5. artikulua.*

Jabetza publikoko bideak, oro har, askatasunez erabiliko dira, betiere haien izaera eta legeak, araudiak eta bestelako xedapenak errespetatuz.

*6 Artikulua.*

Bidearen erabilera berezia izango da ondoren zehaztuko diren ibilgailuek egingo duten erabilera:

— Ar-ibilgailuak,

— Kateak jarrita duten ibilgailuak edo antzekoak,

— Bide-arrasteko ibilgailuak,

— Errodadura-bandadun ibilgailuak,

— Hiru ardatz baino gehiago duten kamioiak,

— Arrasteko gurdiak, hala nola, lerak edo antzekoak,

— Ardatzeko 7 tona baino gehiago pisatzen duten ibilgailuak.

*7. artikulua.*

Jabetza publikoko bideak erabili ahal izateko ezinbestekoa izango da udal baimena aldez aurretik jasotzea.

*8. artikulua.*

1. Bideen erabilera berezia egin nahi duenak dagokion baimena eskatu beharko dio Udalari, horretarako dagoen inprimaki-eredua betez; eman beharreko datu guztiak eman beharko ditu organo eskudunak dagokion erabakia har dezan.

2. Erabakia hartu aurretik nahitaezko txostenak eskatu ahal izango dira. Udaleko zerbitzu teknikoak erabili nahi den bidea ikustera joan daitezke eta haren egoera zehaztu.

3. Erabakia hartzeko eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da. Isiltasunak eskaria ez dela onartu esan nahiko du, ezin baitira isiltasunaren bidez udal jabetza publikoaren gaineko eskumenak eskuratu.

4. Prozedurari amaiera emango dion ebazpenak espedientetik sortutako gai guztiak argituko ditu eta, dagokionean, erabilera berezia egiteko ezarriko diren baldintza guztiak jasoko ditu. Halaber, Ordenantzaren Hirugarren Tituluan aurreikusitako fidantzari buruz erabakiko du.

*Artículo 2.*

El objeto de la presente ordenanza lo constituyen los caminos de titularidad municipal que se hallen enclavados en el suelo no urbanizable (o concepto similar establecido en la legislación urbanística), del término municipal de Legazpi.

*Artículo 3.*

La finalidad de esta regulación consiste en dotar al Ayuntamiento de un marco jurídico adecuado para el ejercicio de sus competencias en materia de conservación de caminos y vías rurales.

*Artículo 4.*

Los caminos a los que se aplicará esta ordenanza serán los que, en cada momento, figuren recogidos en el catálogo o inventario que el Ayuntamiento de Legazpi elabore y apruebe conforme a las disposiciones legales de aplicación.

TITULO PRIMERO

DE LOS CAMINOS PERTENECIENTES AL DOMINIO PUBLICO MUNICIPAL

*Artículo 5.*

El uso común general de los caminos de dominio público se ejercerá libremente con arreglo a la naturaleza de los mismos y a las leyes, reglamentos y demás disposiciones generales.

*Artículo 6.*

Se entenderá como uso común especial la utilización de los caminos demaniales mediante los siguientes tipos de vehículos:

— De oruga,

— Con cadenas o similares,

— De arrastre sobre firme,

— De banda de rodadura,

— Camiones de más de tres ejes,

— De carros de arrastre como leras o similares,

— Vehículos cuyo peso exceda de 7 Tn/eje.

*Artículo 7.*

Para poder hacer un uso común especial de los caminos de dominio público se requerirá contar con previa licencia municipal.

*Artículo 8.*

1. Quien vaya a llevar a cabo la utilización especial del camino, deberá solicitar la correspondiente autorización al Ayuntamiento en el impreso establecido al efecto, consignando cuantos datos sean necesarios para emitir la pertinente resolución por el órgano competente.

2. Antes de dictar la resolución se recabarán cuantos informes se consideren necesarios. Los servicios técnicos municipales podrán girar visita de inspección al camino que vaya a ser utilizado para determinar su estado.

3. El plazo para resolver y notificar será de un mes y el silencio tendrá efectos desestimatorios pues no pueden obtenerse por silencio facultades sobre el dominio público municipal.

4. La resolución que ponga fin al procedimiento dilucidará todas las cuestiones derivadas del expediente y reflejará todas las condiciones, en su caso, que se establezcan para el uso especial. Resolverá también sobre la fianza prevista en el Título Tercero de la presente Ordenanza.

5. Udal baimena izateak ez du interesatua salbuesten indarreko legeriaren arabera eskatu beharreko bestelako baimenak jasotzetik.

*9. artikulua.*

Udalak tasa bat ordaintzea eska dezake udal jabetza publikoko bidearen erabilera bereziarengatik. Aipatu tasa ezarri, kitatu, kudeatu eta ordainarazteari buruz arautu beharreko guztia dagokion Ordenantza Fiskalaren bidez arautuko da.

BIGARREN TITULUA

ONDAREZKO KALIFIKAZIOA DUTEN BIDEAK, ERABILERA EDO ZERBITZU PUBLIKORA LOTUTA EZ DAUDELAKO

*10. artikulua.*

Aipatu bide horiek 6. artikuluan aurreikusitako ibilgailuekin erabiltzeko ez da baimenik eskatuko eta une bakoitzean toki-entitateen ondarezko ondasunak erabiltzeari buruzko ordena-mendu juridikoak dioenera egongo da.

*11. artikulua.*

Bidea erabili nahi duenak dagokion eskaera aurkeztuko du udaletxean. Eskaeran azaldu beharreko datu guztiak azalduko ditu eta horrek dagokion espedienteari emango dio hasiera. Aipatu espedienteak erabilerari eta baldintzei buruz erabakiko du.

*12. artikulua.*

Bidea erabiltzeko eskubidea emango duen administrazio-ebazpena jasoko ez den bitartean ezingo da aipatu bidea erabili.

HIRUGARREN TITULUA

AURREKO BI TITULUENTZAKO XEDAPEN KOMU-NAK

*13. artikulua.*

Legazpiko Udalak fidantza bat jar dadila eska dezake. Fidantza hori zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz jarri ahal izango da udal kontu-hartzailetzan bidea erabiltzen hasi aurretik.

*14. artikulua.*

Fidantzaren zenbatekoa I. Eranskinean ezarritakoaren arabera kalkulatuko da, erabilera-motaren arabera.

Eranskinean jaso diren diru-kopuruak urtero eguneratuko dira Legazpiko Udaleko Alkatetzaren ebazpenaren bidez eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

*15. artikulua.*

1. Bidearen erabilera amaitu ondoren horrela jakinaraziko zaio Udalari; orduan zerbitzu teknikoak bidea ikustera joango dira haren egoera ikusteko eta guztiaren berri emanez txostena egingo dute.

2. Txostenean erabili den bidean konpondu beharreko kalteak sortu ez direla jasoz gero, organo eskudunak ebazpena emango du eta interesatuari fidantza itzultzea (eskatu bazaio) erabakiko du.

5. La obtención de la licencia municipal no exime al interesado de disponer de cuantas otras autorizaciones sean necesarias según la legislación vigente.

*Artículo 9.*

El Ayuntamiento podrá exigir el pago de una tasa por la utilización especial del camino de dominio público municipal. Cuantos aspectos deban ser regulados sobre su constitución, liquidación, gestión y exacción, se llevará a cabo a través de la Ordenanza Fiscal correspondiente.

TITULO SEGUNDO

DE LOS CAMINOS QUE TENGAN LA CALIFICACION DE PATRIMONIALES POR NO ESTAR AFECTOS A UN USO O SERVICIO PUBLICOS

*Artículo 10.*

La utilización de estos caminos con los vehículos previstos en el artículo 6, para lo que no se exigirá licencia, se regirá por lo dispuesto en cada momento en el ordenamiento jurídico en materia de utilización de los bienes patrimoniales de las entidades locales.

*Artículo 11.*

El interesado en la utilización del camino presentará una solicitud ante el Ayuntamiento, con todos los datos necesarios, lo que dará inicio al expediente que resolverá sobre la utilización y sus condiciones.

*Artículo 12.*

En tanto no se disponga de la resolución administrativa concediendo el derecho a la utilización del camino, no podrá iniciarse aquélla.

TITULO TERCERO

DISPOSICIONES COMUNES A LOS DOS TITULOS ANTERIORES.

*Artículo 13.*

El Ayuntamiento de Legazpi podrá exigir que se deposite una fianza, por cualquiera de los medios admitidos en derecho, en la Intervención municipal, antes del inicio de la utilización de los caminos.

*Artículo 14.*

El importe de la fianza se calculará con arreglo a lo dispuesto en el Anexo I según el tipo de actividad a que se refiera la utilización.

Las cantidades que se recogen en el Anexo podrán ser actualizadas anualmente mediante resolución de la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Legazpi y publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Artículo 15.*

1. Una vez finalizada la utilización del camino se pondrá en conocimiento del Ayuntamiento, cuyos servicios técnicos girarán visita de inspección para comprobar su estado, emitiendo inmediatamente el preceptivo informe.

2. Si el informe concluyera que no se le han ocasionado daños al camino que necesiten ser reparados, el órgano competente dictará resolución ordenando devolver la fianza al interesado de haber sido exigida.

3. Txostenean erabili den bidean kalteak sortu direla jasoz gero, kalte horiek kuantifikatu egingo dituzte udaleko zerbitzu teknikoek; ondoren, interesatuari jakinaraziko zaio eta hamar eguneko epea emango zaio esan nahi duena esan dezan. Interesatuak Udalari akordio bat luza diezaioke eztabaida konpontzeko eta adostasun batera iritsiz gero, prozedurari amaiera emango dion ebazpenean jasoko da. Adostutako erabakiaren arabera fidantzarena erabakiko da.

4. Alegaziorik aurkezten ez bada edo kalteak edo haien zenbatekoaren gainean eztabaidarik ez badago, organo eskudunak espedientea erabakiko du. Ebazpenean kalteak egon direla eta haien zenbatekoa zehaztuta geratzen direla egiaztatzen bada, fidantza bahituko da eta Udalak egingo ditu egin beharreko konponketa-lanak fidantzaren kontura eta, behar izanez gero, kontratazio publikoak egiteko ahalmena erabiliko du. Ebazpen hori, berehala betetzeko izango dena, interesatuari jakinaraziko zaio eta zuzenbidean dagozkion helegiteak aurkeztu ahal izango ditu erabakiaren aurka.

5. Konponketa-lanen kostua fidantza baino handiagoa denean, udal kontu-hartzailetzak zorpekoen ziurtagiria luzatuko du eta interesatuari jakinaraziko zaio haren ordainarazpena abiatuz.

Kostua fidantza baino txikiagoa denean, aldea interesatuari itzuliko zaio.

## LAUGARREN TITULUA

## ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

*16. artikulua.*

Arau-hausteak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke.

1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

— Ordenantza honetan jasotako bideak dagokion baimenik gabe erabiltzea, baimen hori nahitaezkoa denean.

— Bidea erabiltzen hastea ezarri beharreko fidantza ezarri gabe, fidantza ezartzea derrigorrezkoa denean.

2. Hauek dira arau-hauste larriak:

— Zirkulatzeko onartutako pisua edo zama baino gehiagorekin ibiliz bidea erabiltzea.

— Emandako baimenetan ezarritako aginduetako baten bat ez betetzea.

— Bidea erabiltzen duten beste erabiltzaileei kalteak gutxitzeko eta haien eskubidea errespetatzeko beharrezko neurriak ez hartzea.

3. Hauek dira arau-hauste arinak:

— Arau-hauste oso larria edo larria ez den bestelako ekintza edo omisio, araudi honetan edo aplikagarria den beste edozeinetan ezarritakoa urratzen denean.

*17. artikulua.*

Arau-hauste oso larriak 1.501 € eta 3.000 € arteko isunarekin zigortuko dira.

Arau-hauste larriaren kasuan isuna 751 € eta 1.500 € artekoa izango da.

Arau-hauste arinek 750 € arteko isuna jasoko dute.

Ezarriko den zehapena erabakitzeko orduan ondoko irizpideak hartuko dira bereziki kontutan:

3. Si del informe se desprendiera la existencia de daños en el camino municipal, se cuantificarán éstos por los propios servicios técnicos municipales, y se comunicarán al interesado concediéndole un plazo de diez días para que pueda alegar cuanto a su derecho convenga. El interesado podrá proponer un acuerdo al Ayuntamiento para solucionar la controversia, acuerdo que, de aceptarse, se recogerá en la resolución que ponga fin al procedimiento. En función de lo acordado se resolverá también sobre la fianza.

4. De no alegarse nada o de discutirse la existencia misma de los daños o su cuantía, el órgano competente resolverá el expediente. Si la resolución considerase acreditada la existencia de los daños y su cuantía, ordenará la incautación de la fianza y el Ayuntamiento reparará los daños con cargo a aquélla, utilizando, de ser necesario, sus potestades en materia de contratación pública. Dicha resolución, que será inmediatamente ejecutiva, se notificará al interesado quien podrá interponer contra la misma los recursos que en derecho procedan.

5. Cuando el coste de la reparación supere el montante de la fianza, la Intervención municipal emitirá un certificado de descubierto que será puesto en conocimiento del interesado iniciándose su exacción.

Si el coste fuese inferior a la fianza la diferencia le será devuelta al interesado.

## TITULO CUARTO

## INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 16.*

Las infracciones se clasifican en muy graves, graves y leves.

1. Se consideran infracciones muy graves:

— La utilización de los caminos contemplados en esta ordenanza sin disponer de la autorización correspondiente cuando ésta fuese necesaria.

— El inicio de la utilización del camino sin haber depositado la fianza cuando ésta hubiera sido exigida.

2. Se consideran infracciones graves:

— Utilizar los caminos con los vehículos superando los pesos o cargas autorizados.

— Incumplir cualesquiera de las prescripciones impuestas en las autorizaciones otorgadas.

— No adopción de las medidas necesarias para minimizar las molestias a otros posibles usuarios del camino y para facilitar el ejercicio del derecho de éstos.

3. Se consideran infracciones leves:

— Cualquier acción u omisión no tipificada como infracción muy grave o grave y que suponga una conculcación de lo establecido en la presente normativa u otra que sea de aplicación.

*Artículo 17.*

Las infracciones muy graves se sancionarán con multa de entre 1.501 y 3.000 €.

Las infracciones graves se sancionarán con multa de entre 751 y 1500 €.

Las infracciones leves con multa de hasta 750 €.

Se considerarán especialmente los siguientes criterios para la graduación de la sanción a aplicar:

a) Nahita egin den edo behin baino gehiagotan egin den.

b) Sortutako kalteen izaera.

c) Urte beteko epean antzeko arau-haustea berriro egitea, arau-hauste hori ebazpen tinkoaren bidez arau-haustetzat hartu denean.

*18. artikulua.*

Zehapenak behar den moduan jar daitezen, unean uneko administrazio-legeria aplikagarrian aurreikusitako zigor-prozedura jarraitu beharko da.

Zehapenak ezarriko dituen organo eskuduna Legazpiko Udaleko Alkatetza-Lehendakaritza izango da.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost laneguneko epearen barruan hartuko du indarra.

ERANSKINA

## FIDANTZA

| | €/ estéreo |
|---|---|
| *1. Egurra ateratzea:* | |
| Km. bateraino | 1 |
| Km. batetik 2 km.raino | 1,5 |
| 2 Km. baino gehiago | 2 |

| | €/ kamioi |
|---|---|
| *2. Bestelako jarduerak:* | |
| Km. bateraino | 42 |
| Km batetik 2 Km.raino | 60 |
| 2 Km. baino gehiago | 67 |

3. *Gutxieneko fidantza:* 600 €.

## SALBUESPENAK

Salbuetsitako klareoan 100 estereorainoko egurra ateratzea fidantza gordailatzeaz salbuetsita egongo da.

*Iragarkia*

Alkate-Lehendakariak, 2006ko apirilaren 28an honako Dekretua eman du:

1. Lerain 10, SL enpresak bultzatuta, 12. arearen (Plazaola) Xehetasunezko Azterketaren aldaketa hasiera batean onartzea.

2. Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 17/94. Legearen 7. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, espedientea hamabost egunetan jendaurrean agerian jartzea, interesatuek aztertu eta alegazioak aurkez ditzaten; horretarako iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta hedapen handiko egunkarietan argitaratuko da.

Legazpi, 2006ko apirilaren 28a.—Alkatea.

(1486) (4591)

a) La existencia de intencionalidad o reiteración.

b) La naturaleza de los perjuicios causados.

c) La reincidencia, por comisión en el término de un año de más de una infracción de la misma naturaleza cuando así haya sido declarado por resolución firme.

*Artículo 18.*

Para la efectiva imposición de las sanciones deberá seguirse el procedimiento sancionador previsto en la legislación administrativa aplicable en cada momento.

El órgano competente para la imposición de las sanciones será la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Legazpi.

## DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a los quince días hábiles de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

ANEXO

## FIANZA

| | €/ estéreo |
|---|---|
| *1. Saca de madera:* | |
| Hasta 1 Km. de uso | 1 |
| Entre 1 y 2 Km. de uso | 1,5 |
| Más de 2 Km. de uso | 2 |

2. *Otras actividades:*

| | €/ camión |
|---|---|
| Hasta 1 Km. de uso | 42 |
| Entre 1 y 2 Km. de uso | 60 |
| Más de 2 Km. de uso | 67 |

3. *Fianza mínima:* 600 €.

## EXENCIONES

Se determina la exención de depositar fianza por la saca de madera hasta 100 estereos en clareo exento.

*Anuncio*

El Alcalde-Presidente ha dictado con fecha 28 de abril de 2006 el siguiente Decreto:

1. Aprobar, con carácter inicial, la modificación del Estudio de Detalle del Area 12 (Plazaola), promovido por Lerain 10, S.L.

2. Conforme a lo dispuesto en el art. 7 de la Ley 17/94 de 30 de junio del Parlamento Vasco, someter el expediente a información pública durante quince días, para que pueda ser examinado y presentadas las alegaciones procedentes, mediante anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor circulación.

Legazpi, a 28 de abril de 2006.—El Alcalde.

(1486) (4591)

*Ediktua*

Azaroaren 26ko Administrazioen Erregimen Juridiko eta Ihardunbide Administratibo Arruntaren 30/1992 Legeko 59.4 eta 61 artikuluetan xedatuaren arabera, Agintaritza zehatzaileak ondoren aipatzen diren pertsona edota erakundeei ezartzea erabakitako zehapenak argitaratzen dira, izan ere, azken helbide ezagunean jakinarazpena egiten saiatu ondoren, ez baita jakinarazterik lortu.

Dagozkion espedienteak, Legazpiko Udaltzaingoaren bulegoan aurkitzen dira.

Salaketaren zehaztasunekin ados ez bazaude, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren hurrengotik zenbatzen hasita hamabost laneguneko epean idatziz aurkeztu ahal izango dituzu bidezkoak iruditzen zaizkizun alegazioak edota egoki deritzozun frogak proposatu ahal izango dituzu.

Epea igaro ondoren, alegazioak aurkezteko duzun eskubidea erabili ez baduzu eta/edo frogak proposatu edo aurkeztu ez badituzu, bidezkoak diren Ebazpenak diktatuko dira.

Legazpi, 2006ko apirilaren 26a.—Alkatea.

(1468) (4592)

*Edicto*

De conformidad a lo establecido en los artículos 59.4 y 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se hacen públicas las denuncias instruídas por el Ayuntamiento de Legazpi a las personas o entidades que a continuación se relacionan, ya que habiéndose intentado la notificación en el último domicilio conocido, ésta no se ha podido practicar.

Los correspondientes expedientes se encuentran en las oficinas de la Policia Municipal de Legazpi.

Si no está conforme con los términos de la denuncia, en el plazo de quince días hábiles siguientes al de la publicación del presente en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa podrá presentar escrito con las alegaciones que estime procedentes y proponer las pruebas que considere oportunas.

Transcurrido dicho plazo sin que haya hecho uso del derecho para formular alegaciones y/o aportar o proponer pruebas, se dictarán las oportunas Resoluciones.

Legazpi, a 26 de abril de 2006.—El Alcalde.

(1468) (4592)

| *Espte. Zka.*<br>*N.º Expte.* | *Izen-abizenak*<br>*Nombre y apellidos* | *Lege arauestea*<br>*Legislación* | *Artikulua*<br>*Artículo* | *Matrikula*<br>*Matrícula* | *Zenbat.*<br>*Importe* |
|---|---|---|---|---|---|
| E2006/8083 | CALABOR MONTOYA, FRANCISCO JAVIER | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | 2653-DGB | 21,00 |
| E2006/8022 | CANTERO GARITANO, JESUS M. | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | SS-4335-AW | 21,00 |
| E2006/6501 | MARTINEZ DE ALBENIZ ATAUN, IBON | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.E | SS-1367-Z | 21,00 |
| E2006/8199 | PINTURAS LA PERLA, S.L., | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | 3754-CBG | 21,00 |
| E2006/6510 | ALDALUR BENGOETXEA, ROBERTO | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | SS-7845-AU | 21,00 |
| E2006/8007 | RODRIGUEZ GIL, XIKER | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | SS-2057-BH | 21,00 |
| E2006/8113 | RODRIGUEZ GIL, XIKER | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | SS2057-BH | 21,00 |
| E2006/8253 | ALBIAZU LARRAZA, M. MICAELA | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | SS-7503-AV | 21,00 |
| E2006/7946 | GOLTSORO S.L., | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | 6612-CJS | 21,00 |
| E2006/8080 | GARCIA LOPEZ, AINHOA | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | SS-2612-AM | 21,00 |
| E2006/7957 | PAPIN FERNANDEZ, MANUEL FRANCISCO | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | 7549-DDT | 21,00 |
| E2006/8241 | ALARCIA ZURBANO, JESUS | Ord. Mun. de aparcamiento subterráneo | ART.7.C | 9557-CJG | 14,00 |
| E2006/8002 | JOLIS GARATE, M. LUISA | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | SS-5053-AT | 21,00 |
| E2006/8010 | GE CAPITAL LARGO PLAZO, | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | 8598-DRH | 21,00 |
| E2006/6576 | CALABOR MONTOYA, FRANCISCO JAVIER | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | 2653-DGB | 21,00 |
| E2006/8195 | CACERES CACERES, ANTONIA | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.C | 3094-CPZ | 21,00 |
| E2006/8125 | SERNA ELGARRESTA, M. ANTXIÑE | Ord. Mun. de Tráfico | ART.42.2 | SS-5382-AD | 21,00 |
| E2006/7980 | LEGARDA-EREÑO EZCURRA, SABINO | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.C | 0036-CNR | 21,00 |
| E2006/8117 | ECHEVARRI URRAZA, KEPA PATXI | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | 4790-BPT | 21,00 |
| E2006/2566 | CANTERO GARITANO, JESUS M. | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | SS-4335-AW | 21,00 |
| E2006/8011 | RIVAS BOURY, FRANCISCO JAVIER | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.94.2.E | SS-8620-AW | 21,00 |
| E2006/8239 | LUMBRERAS GARCIA, HILARIO | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.E | SS-0506-X | 21,00 |
| E2006/7912 | UZCUDUN ARREGUI, AGUSTIN | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | 3279:CJS | 21,00 |
| E2006/2572 | GALARTZA GARTZIA, EDURNE | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.166 | 7164-CMJ | 21,00 |
| E2006/7966 | FUENSANTA VALLEJO, JOSE MARIA | R.D. Leg. 1428/2003, Reglamento Gen. Circ. | ART.91.2.L | SS-1167-AV | 21,00 |

*Ediktua*

Azaroaren 26ko Administrazioen Erregimen Juridiko eta Ihardunbide Administratibo Arruntaren 30/1992 Legeko 59.4 eta 61 artikuluetan xedatuaren arabera, Agintaritza zehatzaileak ondoren aipatzen diren pertsona edota erakundeei ezartzea erabakitako zehapenak argitaratzen dira, izan ere, azken helbide ezagunean jakinarazpena egiten saiatu ondoren, ez baita jakinarazterik lortu.

*Edicto*

De conformidad a lo establecido en los artículos 59.4 y 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se hacen públicas las sanciones dictadas por la Autoridad sancionadora a las personas o entidades que a continuación se relacionan, ya que habiéndose intentado la notificación en el último domicilio conocido, ésta no se ha podido practicar.